

Atsedenaldian

1. ikaslea : Otsotan jostatzen bagina ?
2. ikaslea : Bai ! Ni izanen naiz otsoa eta zuek bildotsak !
3. ikaslea : Bo... Nik ez dut lasterka aritzeko gogorik. Atzo futboleko trebaketa nuen eta gorputz guzia minberatua dut. Kartetan jostatzen bagina ?
2. ikaslea : A ez ! Aski egonak gara jarririk ! Nik mugitzeko gogoia dut ! Futbolean ar gaitzen eta zu, akitua baldin bazara, atezain egizu.
3. ikaslea : Berriz ni atezain ? Azken aldian ere atezain nintzen.
1. ikaslea : Jakin behar da zer nahi duzun ! (Pentsakor) Zer egin genezake... Uztaiak lerrokatuko ditugu eta errelebo gisa joan-jinak egingen ditugu. Aldizka ereduia emanen dugu eta zuk gorputza minberatua baldin baduzu, so egoiten ahalko zara.
2. ikaslea : Bai eta uztaiak mugituko ditugularik beren lekuan ezarriko dituzu. Bazaizu ?
3. ikaslea : Ados baina arratsalde honetan nik dut jokoia hautatuko. Are, non dira uztaiak ?
- Driiiiiiiii.....*
- Irakaslea : Tenorea dugu ! Sartzen gara !
1. ikaslea : Zer ? Jadanik ?
2. ikaslea : Ez dugu astirik ukan jostatzeko !
- Irakaslea : Bistan dena ! Atsedenaldirik guzia eztabaidan pasatua duzue ! Are ! Lanera orain !

Jokalaria : Hiru ikasle eta irakaslea
Autorea : Kattalin Sallaberry
Argitaratzailea : Ikas
Argitaratze data : 2010/12/21
Maila : 3. ziklotik goiti